



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 11

21. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Vianako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Vianako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Vianako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Vianako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Udala (4. or.).
- III.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (5. or.).
- IV.** Iritzia (6. or.).
 - IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).

- V.** Kontu orokorraren laburpena (8. or.).
 - V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera-orria (8. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaitzaren egoera-orria (9. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (9. or.).
 - V.4. Egoera-balantzea (10. or.).
 - V.5. Galeren eta irabazien kontua (11. or.).
- VI.** Konklusioak eta gomendioak (12. or.).
 - VI.1. Udalaren aurrekontu orokorra (12. or.).
 - VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2018-12-31n (13. or.).
 - VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14. or.).
 - VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (15. or.).
 - VI.5. Kudeaketa-alor aipagarriak (15. or.).
- VII.** "Nuestra Señora de Gracia" fundazioa (25. or.).
Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).
Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (28. or.).
Eranskina. "Nuestra Señora de Gracia" fundazioaren kontuak
(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2019rako fiskalizazio-programari jarraituz, Vianako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, udal antolaketa, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak eta araudi erregulatzailerak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa adierazten ditugu. Laugarren atalean, Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko eta legezketasuna betetzeari buruzko gure finantza-irritzia ematen dugu.

Bosgarren atalean, Kontu Orokorraren laburpen bat erantsi dugu. Seigarren atalean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendioak ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen betetzea eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak. Azkenik, zazpi-garren atalean, "Nuestra Señora de Gracia" fundazioaren jarduera, estatutu-osaera eta kontuak Udalari bidaltzeko betebeharrak deskribatzen ditugu.

Landa-lana 2019ko iraila eta urria bitartean egin zuen kontratatutako auditoretza-enpresa bategi, auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.

Jarduketa honen emaitzak Vianako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, Vianako Udaleko alkateak aurkeztu ditu alegazioak.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. UDALA

Viana udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean 4.156 biztanle zituen eta 78,62 Km²-ko azalera duena.

Udalaren gobernu-organok Osoko Bilkura eta alkatea dira.

Udala ez da erakunde autonomoz edo udal-zerbitzuak emateko ente instrumentalez hornitu.

2018ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	5.232.552	4.425.422	36
Guztira	5.232.552	4.425.422	36

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Jurramendiko Mankomunitatea; horren bidez ematen dira uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta hirigintzako zerbitzuak (EEZB eta hirigintza zerbitzuak).

Zerbitzu mankomunatu horrek 102.489 euroko gastua ekarri dio Udalari.

- “Nuestra Señora de Gracia” fundazioa Vianako zaharren egoitza kudeatzeaz arduratzen da. Patronatuko Batzordea Vianako Udaleko zinegotzi guztiek, alkateak, zeina batzarreko burua baita, eta Karitateko Alaben kongregazio erlijiosoko kide batek osatzen dute. Batzarrak bere kontuak onesten ditu, eta ez dago jasota 2018an Udalak finantza-ekarpenik egin duenik.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek kudeatzeko modua honako hauek dira:

Udal zerbitzuak	Zuzeneko kudeaketa	Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea	Fundazioa
	Udala	Zerbitzu-kontratua		
Argiteria publikoa		X		
Hilerria	X			
Kale garbiketa	X			
Edateko uraren etxeetako horni-estolderia	X		X	
Parke publikoa		X		
Hondakinen tratamendua eta Babes zibila	X			
Gizarte zerbitzuak	X			
Kirol instalazioak	X	X		
Zahar-etxea				X
Musika eskola		X		
Kultura	X			
Turismoa	X			
Hurtzaindegia		X		
Hirigintza			X	

2018an Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Vianako Udalaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea 2018ko ekitaldian Udalak egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin

- Aurreko ekitaldietan emandako gomendioen betetzea.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren irismena Vianako Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

- Udalaren kontua, honako hauek osatzen dutena:

- a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak osatzen baitute.

- c) Udalaren kontuaren eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezketasuna betetzeari dagokionez, irismena txosten honen VI. epigrafean aipatzen diren berrikusitako eragiketei dagokie.

IV. IRITZIA

Vianako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardua duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko uztailearen 18an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200en ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, aurkezpen hori bere osotasunean hartuta.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritzia funtsa izateko.

IV.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Ondasunen inbentarioa 2009koa da, eta ekitaldi hartan zati batean eguneratu zen ondasun higigarri eta higieziinei zegokienez, baina ez herri-lurrei eta ondare historiko-artistikoari zegokienez. Horrenbestez, ezin dugu egiaztatu Udalaren egoera-balantzeko ibilgetuari dagokion kontabilitate-saldoaren arrazoikotasuna; saldo hori 49,2 milioi eurokoa da 2018ko abenduaren 31n.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako norainokoaren mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, Udalaren Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Udalaren ondareari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagoikienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

295.030 euroko gastuak ordaindu dira kontratu-euskarririk gabeko zenbait zerbitzu emateagatik, kasu batzuetan dagokion adjudikazio-prozedura izapidetu ez delako, eta beste batzuetan kontratuen gehieneko indarraldia gainditu delako.

Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziz, egindako lanaren irismena kontuan hartuta, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginengatik ez bada, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENEA

Ondoren, 2018ko Kontu Orokorraren kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak, kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.573.430	-41.500	1.531.930	1.456.606	95	1.431.654	98	24.952
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.877.700	51.500	1.929.200	1.822.064	94	1.662.962	91	159.102
3. Finantza-gastuak	-	500	500	106	21	106	100	-
4. Transferentzia arruntak	359.680	-	359.680	230.619	64	209.896	91	20.723
6. Inbertsio errealak	564.927	1.764.142	2.329.069	886.998	38	778.854	88	108.144
7. Kapital-transferentziak	19.000	32.705	51.705	29.029	56	29.029	100	-
Guztira	4.394.737	1.807.347	6.202.084	4.425.422	71	4.112.501	93	312.921

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	% Kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	1.440.000	-	1.440.000	1.796.238	125	1.546.378	86	249.860
2. Zeharkako zergak	100.000	-	100.000	294.618	295	104.490	35	190.128
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	538.912	-	538.912	575.219	107	552.053	96	23.166
4. Transferentzia arruntak	1.768.645	-	1.768.645	1.814.141	103	1.780.718	98	33.423
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	265.900	-	265.900	297.693	112	239.496	80	58.197
6. Inbertsio errealen besterentzea	21.100	-	21.100	21.100	100	21.100	100	-
7. Kapital-transferentziak	260.181	238.709	498.890	433.543	87	227.523	52	206.020
8. Finantza-aktiboak	-	1.612.498	1.612.498	-	-	-	-	-
Guztira	4.394.738	1.851.207	6.245.945	5.232.552	84	4.471.758	85	760.794

V.2. AURREKONTU-EMAITZAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
+ Aitorturiko eskubide garbiak	4.182.281	5.232.552
- Aitorturiko betebeharrak	3.778.298	4.425.422
Aurrekontu-emaitza	403.983	807.130
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-	164.562
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	-	78.609
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	222.761	349.940
Aurrekontu-emaitza doitua	626.744	1.071.117

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	337.338	785.569
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	243.605	760.794
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.315.226	1.185.473
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	75.832	61.923
(+) Ordainketen itzulketak	342	60
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.286.552	1.211.547
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	11.115	11.135
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	482.198	598.704
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	253.945	312.920
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	22.935	18.491
(+) Diru-sarreraren itzulketak	13.788	7.710
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	1.375	-
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	192.905	259.583
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.987.806	2.526.622
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.842.946	2.713.486
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	-	164.562
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.842.946	2.548.924

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.4. EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Ibilgetua	49.143.759	49.186.166
1 Ibilgetu materiala	47.208.643	47.148.180
2 Ibilgetu ez-materiala	40.179	56.532
4 Herri-ondasunak	1.835.089	1.921.606
5 Finantza-ibilgetua	59.848	59.848
C Zirkulatuzailea	3.624.186	4.534.873
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.635.005	2.008.251
9 Finantza-kontuak	1.989.181	2.526.622
Aktiboa, guztira	52.767.945	53.721.039

* Auditatu gabeko ekitaldia

Pasiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Funts berekiak	52.273.257	53.111.199
1 Ondarea eta erreserbak	41.242.394	41.033.554
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	167.056	787.833
3 Kapitaleko dirulaguntzak	10.863.807	11.289.812
D Epe laburreko hartzekodunak	494.688	609.840
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	483.574	598.705
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	11.114	11.135
Pasiboa, guztira	52.767.945	53.721.039

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	1.308.380	1.367.919	70 Salmentak	424.136	431.705
62 Finantza-gastuak	-	108	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	311.157	342.445
63 Tributuak	44	187	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.347.444	1.512.218
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.769.476	1.812.169	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	278.170	294.014
65 Gizarte prestazioak	135.065	98.394	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	1.688.727	1.814.141
67 Transferentzia arruntak	195.077	230.619	77 Kapitalaren gaineko zergak	-	284.624
68 Kapital-transferentziak	64.948	29.029	78 Bestelako diru-sarrerak	84.177	106.300
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	456.008	445.575	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	204.813	801.447	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
Guztira	4.133.811	4.785.447	Guztira	4.133.811	4.785.447

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	204.813	801.447
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	-	2.021	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	6.694	-
84 Itxitako aurrekontuetako aitortutako eskubideen eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	44.451	11.593	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	167.056	787.833	89 Etekin garbia, guztira (Saldo zorduna)	-	-
Guztira	211.507	801.447	Guztira	211.507	801.447

* Auditatu gabeko ekitaldia

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalaren 2018rako hasierako aurrekontuak 4,39 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak jasotzen zituen.

Gastuen aurrekontuan 1,81 milioi euroko aldaketak egin dira —hau da, % 41 igoera izan da—, eta behin betiko kredituak 6,20 milioi eurokoak izan dira.

Halaber, diru-sarreraren aurrekontuan egindako aldaketak 1,85 milioi eurokoak izan dira —hau da, ehuneko 42ko igoera—, eta diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak 6,25 milioi eurora igo dira. Aurrekontuan egindako aldaketetatik, 1,61 milioi euro 2017ko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinarekin egin dira.

Aurrekontuaren likidazioa

2018an, gastuek 4,43 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 71koa eta ordaintze-maila ehuneko 93koa izan dira. Aurreko ekitaldiko gastuak baino ehuneko 17 handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 5,23 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 84ko eta 85eko exekuzio- eta kobrantza-mailarekin, hurrenez hurren. Igoera ehuneko 25koa da, 2017. ekitaldiarekin alderatuta.

Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza-iturria	Ehunekoa
Langileak	33	Tributu bidezko diru-sarrerak	51
Bestelako gastu arruntak	46	Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	43
Inbertsio errealak	20	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	6
Kapital-transferentziak	1		

Hau da, gastu arruntek gastu osoaren ehuneko 79 esplikatzeko dute, eta horietatik langileria-gastuak gastu guztien ehuneko 33 dira, eta gainerako gastu arruntak, berriz, ehuneko 46. Bestalde, inbertsioek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 20 hartu zuten, eta kapital-transferentziak hondar-izaera besterik ez zuten izan. Diru-sarrerei dagokienez, iturri nagusia tributu-izaerakoak izan dira (% 51), eta ondoren transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak datoz, zeinek % 43 egiten baitute.

Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste diru-sarrera batzuek diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko sei egiten dute. Haien osaeratik ondoriozta daiteke Udalaren berezko diru-sarrerak ehuneko 57 direla, eta, beraz, kanpoko finantzaketa-iturriak baino handiagoak direla, iturri horiek ehuneko 43 baitira.

Ondoren, 2018ko eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

	2017	2018	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	4.182.281	5.232.552	25
Aitortutako betebeharrak, guztira	3.778.298	4.425.422	17
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	4.131.632	4.777.909	16
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	3.408.042	3.509.289	3
Kapitaleko diru-sarrerak	50.650	454.643	798
Kapitaleko gastuak	370.256	916.027	147
Saldo ez-finantzarioa	403.983	807.130	100
Aurrekontu-emaiza doitua	626.744	1.071.117	71

Aurreko datuak eta haien bilakaera direla-eta honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko diru-sarreraren likidazioa 1,05 milioi euro handitu zen, eta horrek esan nahi du likidazio-maila % 25 handiagoa izan zela aurreko ekitaldikoa baino, batez ere diru-sarrera arruntak 0,65 milioi euro handitu zirelako, hau da, ehuneko 16; kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 798 handitu ziren: zenbaki absolutuetan diru-sarreretan 0,40 milioi euro gehiago egotea ekarri zuten.

- 2018an aitortutako betebeharrak 0,65 milioi euro handitu ziren 2017arekin alderatuta; hau da, % 17ko igoera izan zen, batez ere kapitaleko gastuen betetzea 0,55 milioi euro handiagoa izan zelako, % 147 handiagoa; igoera hori handiagoa izan da gastu arruntetan izandakoa baino; izan ere, azken horiek 0,10 milioi euro handitu ziren, ehuneko hiru.

- Aurrekontu-emaiza doitua 1,07 milioi eurokoa da, eta 0,44 milioi euro handitu da; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko 71 igoera izan da.

VI.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2018-12-31n

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	Aldea (%)
Aurrezki gordina	723.589	1.268.620	75
Finantza-zama	-	106	-
Aurrezki garbia	723.589	1.268.514	75
Finantza-zamaren adierazlea	-	-	-
Aurrezki gordinak diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehunekoa	% 18	% 27	50
Zorpetze-ahalmena (%)	% 18	% 27	50
Zorra, guztira	-	-	-
Biztanle bakoitzeko zorra	-	-	-
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	-	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.842.946	2.548.924	38
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	% 45	% 51	13
Kobranta zalantzarriaren indizea (Kobranta zalantzarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	% 83	% 62	-25

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak aipatu nahi ditugu:

- 2018an, aurrezki gordina 0,55 milioi euro handitu da aurreko ekitaldian izandakoaren aldean, hau da, ehuneko 75, batez ere diru-sarrera arruntak ehuneko 16 igo direlako eta funtzionamendu-gastuak ehuneko hiru igo direlako. Ondorioz, bai aurrezki gordina bai aurrezki garbia

1,27 milioi euroraino igo dira, finantza-zama ez delako esanguratsua izan. Finantza-zama gisa agertzen den zenbatekoa ez da zorpetze-eragiketetatik sortzen, baizik eta berandutze-interesengatiko gastuetatik.

- Udalak diru-sarrerara arrunten gainean duen aurrezki gordinaren ehuneko eta zorpetze-ahalmena ehuneko 27koa da. Bi adierazle horiek bat datoz, zorpetzerik ezaren ondorioz finantza-zamarik ez dagoelako. Nabarmendu nahi dugu 2017-2018 aldian ez dela zorpetzea hitzartu.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 0,71 milioi eurotan egin du gora; beraz, ehuneko 38 igoera izan da 2017ko ekitaldikoarekin alderatuta, eta 2,55 milioi euroko kopurura iritsi da. Magnitude positibo horrek adierazten du hurrengo ekitaldietan gastuak finantzatzeko likideziarik badagoela.

- Kobrantsa zaileko saldoen indizea 2017an % 83koa izatetik 2018an % 62koa izatera jaitsi da.

Azken batean, finantza-egoerari dagokionez, saneatua dela ondoriozta daiteke; izan ere, aztertutako adierazleak positiboak dira eta, gainera, aldaketa positiboak izan dituzte aurreko ekitaldiarekiko. Halaber, zorpetzerik ez dagoela nabarmentzen da, eta horrek aukera ematen du horretara jo ahal izateko hala eskatzen duten inbertsio berriak planteatuz gero, betiere aurrekontu-egonkortasunaren esparruarekin eta aztertutako adierazleetan agerian jarritako zorpetze-ahalmenarekin bat etorritik.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideak jarraituta, soilik Udala bera jotzen da administrazio publikotzat; hona hemen haren datuak:

- Aurrekontu-egonkortasuna.

695.927 euroko finantzaketa-gaitasuna sortu da.

Finantzaketaren gaitasuna/beharra

	2018ko zenbatekoa
Finantzaz besteko diru-sarrerak	5.232.552
Gastu ez-finantzarioak	4.425.422
Saldo ez-finantzarioa	807.130
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-188.611
Doikuntza positiboa, 2017-2019 tuki inbertsioen plana	77.408
Finantzaketa-gaitasuna	695.927

- Gastuaren araua.

Gastu konputagarria, Udalaren datuen arabera, 2018ko ekitaldian, 3.924 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarria	3.051.755
% 2,4ko igoera	73.242
2018rako aurreikusitako gastu-muga	3.124.997
2018ko gastu konputagarria	3.121.073
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-3.924

Gure berrikuspenean, Udalak aintzat hartu ez zituen zenbait doikuntza egin ditugu. Gure doikuntzen emaitzak Udalak kalkulaturakoaz bestelako gastu-desbideratzearen zenbatekoa ematen du, eta, edonola ere, gastu-araua betetzen dela ikusten da.

- Iraunkortasun finantzarioa

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, Udalak ez du zor bizirik 2018ko abenduaren 31n.

b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gaindizten 30 egun baino gehiagotan berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarrita dagoen gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	-8,72
Bigarren hiruhilekoa	21,72
Hirugarren hiruhilekoa	19,82
Laugarren hiruhilekoa	14,79

Ordaintzeko batez besteko epeak lehen hiruhilekotik gainerako hiruhilekoetara izan duen bila-kaerak ez du esan nahi adierazleak okerrera egin duenik; aitzitik, 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharrekoa den 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu-metodologia berriaren ondorioa da.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Ganbera honek emandako azken txostenari dagokionez (2010eko ekitaldiari buruzkoa da), honako gomendioek ezarri gabe jarraitzen dute:

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agindutako epeetan egin eta onartzea.*
- *Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistroa eta inbentarioa bereizita kudeatzea, 35/2002 Foru Legean aurreikusitako helburuak bete daitezten.*

VI.5. KUDEAKETA-ALOR AIPAGARRIAK

VI.5.1. Alderdi orokorrak

2018ko ekitaldirako aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta 2018ko ekainaren 4an NAO n argitaratu zenean jarri zen indarrean.

Kontu Orokorra 2019ko uztailaren 18ko osoko bilkuran onetsi zen. Dena den, hura berrikusita, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Ez da jaso tasa eta prezio publikoekin finantzaturako zerbitzuen kostua kalkulatzeko oroitidazkirik.
- Ez dago jasota alkateak sinatutako oroitidazki ekonomikorik, ez eta indarreko legeriak eskatutako esku-hartze txostenik ere, ekitaldian gauzatutako inbertsio finantzarioki jasagarrietan.
- Ondasunen inbentarioa 2009koa da, urte horretan egin baitzen inbentarioa eguneratzeko lana; halere, hartan ez ziren sartu herri-ondasunak eta ondasun historiko-artistikoak.
- Kontingentziei dagokienez, jasota dago prozedura judizial hauek badaudela:

a) Udalarai aurkeztutako erreklamazio bat, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kobrantzarengatik. Zerga hori 2018an igorri zen, eta 157.000 eurokoa izan zen.

b) Kirol-instalazioen adjudikazio-hartzaileak bi erreklamazio aurkeztu zituen, eta erreklamazio horietatik 153.555 euroren jatorria da Udalak 2013ko eta 2014ko ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzeko behin-behineko ekarpenak itzultzeko eskatu zuela. Beste erreklamazioaren arrazoia izan zen adjudikazio-hartzaileak kontratua suntsiarazteko eskaera egin zuela. Eskera horren bidez, 940.000 euro erreklamatzeko, 2013tik 2015era bitarteko ekitaldietan izandako galerengatik eta exekutatu bai baina errentabilizatu ez diren inbertsioengatik.

Bi erreklamazioek, gure txostena igorri arte, aldeko epaiak badituzte ere Administrazioarekiko Auzien Epaitegian eta Nafarroako Auzitegi Nagusian, bai eta Nafarroako Administrazio Auzitegian ere, eta behin betiko epai judizialik ez egon arren, informazio hori Kontu Orokorraren oroitidazkian sartu beharko litzateke.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontuak behin betiko onestea eta argitaratzea indarrean dagoen legeriak agintzen duen epean.*

- *Kontu orokorraren espedientean sartzea tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostua kalkulatzearen oroitidazkia.*

- *Egiten diren finantza-inbertsioetan indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen oroitidazkiak eta txostenak betetzea.*

- *Udal inbentarioa eguneratzea, eguneratze horretan udal jabetzako ondasun eta eskubide guztiak sartuz.*

- *Kontu Orokorraren oroitidazkian, ekitaldi-itxieran agertzen diren eta zenbateko adierazgarria duten erreklamazio judizialen informazioa eta kuantifikazioa sartzea.*

VI.5.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzaitzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean, Kontu-hartzaitzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.

- Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzaitzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen alde aurreko fiskalizazio osoaren bitartez. Barne-kontrolako eginkizunez gain, 6/1990 Foru Legeak Kontu-hartzaitzari emandako zereginak dira aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuena, bai eta kontabilitatea ere; eginkizun horiek Udaleko kontu-hartzaileak betetzen ditu, administrari-ofizial baten laguntzarekin.

- 2018ko abenduan, esku hartzeko txosten bat jaso zen, alkateari zuzendua, eta, bertan, zenbait zerbitzu-kontratutan kontratu-euskarria ez zela egokia ohartarazten zen, bai eta diru-sarreraren zenbait anomaliari buruzko ohar bat ere, zehazki, ordenantza fiskalen berrikuspenari buruzkoa. Txosten hori, ondoren, 2019ko martxoan aurkeztu zitzaion Udalaren Osoko Bilkurari.

Uste dugu, arestian aipatutako organoei jarduketan zerrenda bat helaraztea zuzena den arren, Kontu-hartzaitzak desadostasun batzuk agerian jartzen dituela, eta horiek eragozpen gisa hartu behar direla berariaz, eta, hala badagokio, etete-izaera dutela adierazi, tokiko ogasun-esparruan ezarritakoaren arabera.

Gure gomendioak:

- *Espedienteei buruz ematen diren eragozpenak berariaz adieraztea, haietan desadostasunak ikusi badira.*

- *Kontu-hartzaitzaren giza baliabideen nahikotasuna baloratzea barne-kontrola egiteko, eta, hala badagokio, finantza- eta eraginkortasun-kontrola egiteko behar beste baliabide ematea.*

VI.5.3. Langileak

Langile-gastuek 1,46 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 95ekoa izan da. 2018ko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 33 dira.

2017ko ekitaldiari dagokionez, gastu hori ehuneko bi handitu da, batez ere aurrekontuei buruzko legeetan enplegatu publikoei aplikatzen zaien ordainsari-igoeraren ondorioz.

Hona gastu horien xehatzea eta 2017koekiko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2017	2018	
Goi-kargudunak	16.960	26.285	55
Funtzionarioak	539.078	559.461	4
Lan-kontratadun langileak	451.935	471.762	4
Kuotak, prestazioak eta gizarte-zamak	424.923	399.097	-6
1. kapitulua, guztira	1.432.896	1.456.605	2

Behin betiko plantilla organikoa 2018ko uztailaren 23ko NAO n argitaratu zen; hona hemen datuak:

Zenbat	Lanpostuak
Funtzionarioak	23
Lan-kontratadun finkoak	16
Guztira	39

Honako hau da lanpostuen egoera 2018an:

	2018
Plantillako langileak	39
Postu beteak	17
Lanpostu hutsak	22
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	% 56
Betetako lanpostu hutsak	18
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	% 82
Bete gabeko lanpostu hutsak	4
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	% 18

2018an, lanpostu guztien ehuneko 56 hutsik daude; horietatik, ehuneko 82 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 18k, bete gabe jarraitzen dute.

Langileen arloan berrikuspena egin ondoren, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko ekitaldian, lan eskaintza publiko bat (aurrerantzean, LEP) argitaratu zen, familia-langileen bi lanposturekin, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gehigarrian oinarrituta. 2019ko ekitaldian, eskaintako bi lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez bete dira.

Hala ere, tasa horren barruan konputa daitezkeen lanpostuak berrikusi ditugu. Gure ustez, lan-kontratadun langile finkoen 11 lanpostu zeuden egoera horretan, 2018ko lan-eskaintza publikoan jasotako bi lanpostuak barne.

- 2018ko ekitaldian egindako aldi baterako kontratazioen lagin bat berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu egoki izapidetu zirela, merezimenduko eta gaitasuneko baldintzei jarraituz; halere, kasu guztietan ez da justifikatu aipatutako kontratazioak aparteko izaerarekin egin izana, beharri-urgente eta geroraezinak estaltzeko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezarritzen duen moduan.

- Ikusi da, bi kasutan izan ezik, aldi baterako lan-araubidean kontratatutako langileek 1998tik 2009ra bitartean hasitako lan-lotura dutela.

Horri dagokionez, esan behar dugu Laneko eta Gizarte Segurantzako Nafarroako Ikuskaritza Probintzialak eginbideak ireki zituela 2017an, lau langileren kasuan, haiek kontratu mugagabea duen langile ez-finko bihurtzeko, baina ez dakigu Udalak horri buruzko neurririk hartu duen.

- Langileen nominen lagin bati buruz egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, langileen espedienteak osorik daudela, gastuak zuzen kontabilizatuta daudela, atxikipenak zuzen egin direla, eta ordaindutako ordainsariak plantilla organikoaren arabera betetako lanpostuari eta espedienteen jasotako administrazio-inguruabarrei eta familia-inguruabarrei dagozkiela.

Gure gomendioak:

- *Egiturazko lanpostu hutsetarako deialdiak egitea, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezartzen den aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarriko aukeren arabera.*

- *Justifikatzea kontratazio berriak aparteko kasuetan egin daitezela eta, betiere, beharrian urgente eta geroraezinak betetzeko.*

VI.5.4. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Udalaren ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuek 1,82 milioi euro egin zuten 2018an; aurreikusitako kredituaren ehuneko 94ko betetze maila da hori.

Ekitaldian aitortutako obligazio guztien ehuneko 41 dira, eta aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bi handiagoak izan ziren, batez ere mantentze- eta kontserbazio-gastuaren igoeraren ondorioz.

Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa 2018an lizitatutako eta/edo adjudikatutako gastu-partiden eta zerbitzuen lagin baten gainean egin da.

Gastu-partidak

Aurrekontu-partida	Aitortutako betebeharrak, 2018
0-3 urteko haurrentzako hezkuntza begiraleak	122.583
Argiteria publikoa	94.960
Lorategiak mantentzeko kontratua	88.400
Musika eskolako musika-irakaskuntza	86.214
Hirigintza zerbitzua	66.172
Garbiketa-kontratua eta aterpetxean arretea ematea	43.120
Ikastetxearen garbiketarako kontratuak	39.113
Gazte gunearen kudeaketa	35.504
	576.066

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak egindako kontratuen arabera justifikatuta daudela, onetsita daudela, kontuhartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

- Dena den, akats hauek aipatu behar ditugu:

a) Argi publikoen gastua (94.960 euro) eta gazte-zentroaren kudeaketa (35.504 euro) dagokien kontratazio-espedientea izapidetu gabe egin dira

b) Lorategiak mantentzeko adjudikatutako kontratua 2017an amaitu zen, kontratu-esparruan aurreikusitako luzapen guztiak agortu ondoren; hala ere, Udala mantentze-lanak nazioarteko-zeko egiten ari den azterlanaren ondorioz, entitate adjudikazio-hartzaileak zerbitzu hori ematen jarraitzen du, eta horrek 88.400 euroko gastua ekarri du 2018an.

c) Musika-prestakuntzarako arautu gabeko irakaskuntza-zerbitzuak 51.840 euroko gastua eragin du, 2010eko ekitaldian mugaeguneratutako aurreko kontratu batean oinarrituta. Hala ere,

aipatu behar dugu 2018ko ekitaldian kontratu berri bat lizitatu eta adjudikatu dela, eta kontratu hori geroago aztertuko dela.

d) Aipatutako gastu guztiak Kontu-hartzaitzak alkateari aurkeztutako txostenaren parte dira. Txosten hori gure txostenaren VI.5.2 atalean jaso da.

- Ez dago berriaz jasota zerbitzu jakin batzuetatik jasotako fakturei oniritzia eman zaienik, kontratuak arautzen dituzten agirietan ezarritako baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatze aldera, eta, beraz, uste dugu ez dagoela ezarrita kontratatutako zerbitzu horiek gauzatzearen jarraipena egiteko barne-kontrolerako sistema egokirik.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

Deskribapena	Adjudikazio-prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa*	Prezioa Adjudikazioa*	Beharpena (%)
Musika-prestakuntzarako arautu gabeko irakaskuntzarako kontratua	Irekia, Europar Batasunean publi-	1	83.760	83.760	0

* Zenbatekoa BEZik gabe

Berrikusitako kontratuaren lizitazioa, adjudikazioa eta betetzea kontratuei buruzko legeriaren arabera izapidetu dira.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kontratazio-espeditentek izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan..*
- *Kontratutako zerbitzu jakin batzuk gauzatzearen jarraipenaz eta kontrolaz arduratuko diren langileen eginkizunak definitzea eta esleitzea.*

VI.5.5. Transferentzia arruntengatiko gastuak

Transferentzia arruntak direla-eta Udalak egindako gastuak 0,23 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko bost egiten dute.

Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 64koa izan zen, eta ehuneko 18 handitu ziren aurreko ekitaldiarekiko, batez ere ikastetxeetara eta elizara egindako transferentziak handitu direlako.

Transferentzia arrunten gastuak osatzen dituzten partida nagusiak honako hauek dira:

Partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Kirol instalazioak	64.000
Adingabeentzako eta familientzako laguntzak	23.383
Ikastolari egindako transferentzia	20.000
Bideko DBHlari egindako transferentzia	20.000
Musika bandarekiko hitzarmena	12.500
Elizarako dirulaguntza	12.000
Guztira	151.883

Gastu-partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2018
Kirol instalazioak	64.000
Adingabeentzako eta familientzako laguntzak	23.383
Musika bandarekiko hitzarmena	12.500

Berrikuspen hori eginda, esan beharra daukagu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman eta erregistratu direla; halere, honako gorabehera hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak ez du dirulaguntzei buruzko plan estrategikorik, ez eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrik ere.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko prozedura orokorra arautzen duen ordenantza orokor bat onartzea.*

VI.5.6. Inbertsioak

Aitortutako betebeharrak 0,89 milioi eurokoak izan dira, eta behin betiko kredituen gaineko ehuneko 38ko betetze-ehunekoa izan dute. Ehuneko apal horren arrazoia da aurreikusitako obra batzuek edo betetze txikia izan dutela edo ez direla egin.

Honako hauek izan dira kapitulu honetako 2018ko gastu aipagarriak:

Aurrekontu-partida	Aitortutako betebehargarbiak, 2018
Santa María kalea zolatzea	128.283
DBHlko arkitektura-oztopoak kentzea	117.972
Bideetako inbertsioa	117.832
DBHlko estaldura aldatzea	88.934
Ebakuazio-plana: eskailerak...	74.978
Basolanak, 2017-2018 landa garapeneko programa	58.199
Bide publikoaren kontserbazioa eta mantentzea	35.972
	622.170

2018ko ekitaldian adjudikatutako kontratuen honako lagin hau aztertu dugu:

Deskribapena	Adjudikazio-prozedura	Zenbat lizita-	Lizitazioaren zenba-	Adjudikazioaren zenbate-	Beharpena (%)
Santa María kaleko berritze-lanak	Irekia, Europar Batasuneko	4	186.596	178.639	4
Vianako gune historikoko argiteria berritzea.		8	67.685	38.580	43**

* Zenbatekoa BEZik gabe

** Egindako bajaren ehunekoari erreparatuta, ez da eskaintza anormalki baxutzat jotzen, baldintza-agiri arautzaileetan ezarritako irizpidearen arabera.

Egindako berrikuspenaren konklusioa da ezen, oro har, aplikatzekoa den araudi indarduna errespetatu dela, eta gastuak baimenduta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta epean ordaindu direla.

VI.5.7. Tributua, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk**Zergak**

Zergak Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 40 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2018/2017
	2017	2018	
Zuzeneko zergak	1.484.809	1.796.238	21
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	37.356	37.444	0
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	859.044	854.336	-1
Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga	278.169	294.014	6
Hiri-lurren balio-gehikuntza	-	284.624	-
JEZa	310.240	325.821	5
Zeharkako zergak	140.804	294.618	109
EIOZa	140.804	294.618	109
Guztira	1.625.613	2.090.856	29

Hauek dira Osoko Bilkurak 2018ko ekitaldirako onetsi zituen zerga-ordenantzetan ezarritako zerga-tasak:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,2236	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,8	
Hiri-lurren balio-gehikuntza	12,9	8-25
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4,12	2 - 5

Zergen honako lagin hau berrikusi da:

Zerga	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	854.336
Hiri-lurren balio-gehikuntza	284.624
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	294.618

Egindako berrikuspenean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen arabera egin direla; halere, honako hauek aipatu behar ditugu:

- Azkeneko balorazio-ponentzia 2007ko ekitaldian egin zen. 2019ko ekitaldian, Udalak balorazio-ponentzia eguneratu du, eta hura onesteko ebazpena 2019ko apirilaren 15eko NAOn argitaratu da. Horrenbestez, 2018ko ekitaldian, Udalak hiri-lurren kontribuzioari eta landa-lurren kontribuzioari aplikatzen aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitu du.

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epai baten ondorioz; horren bidez, izan ere, konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat jotzen dira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk, eta horren ondorioz deusezak dira balio-gehikuntzarik ez dagoen transmisioetan egindako likidazioak.

Epai horrek eragin du lege-aldaketa bat egin dadila; hain zuzen ere, abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legearen bidez gauzatu zena. Berritasuna da, funtsean, ez dela zergarik ordaindu behar subjektu pasiboak balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen duen kasuetan. Halaber, hartan denbora-eremua arautzen da eta likidazio-dataren arabera eta likidazio hori irmoa izatearen ala ez izatearen arabera aplikatzekoak diren arau desberdinak ezartzen dira, 2017ko bigarren seihilekoan egindako eragiketarako ez ezik, 2018ko urtarrilaren batetik aurrera sortzen direnarako ere.

Konstituzio Auzitegiaren epaiak berekin ekarri zuen ziurgabetasun juridikoak eragin zuen 2017ko ekainetik aurrerako likidazioak geraraztea; zehazki, balio-gehikuntzarik ez egotea aurreikusten zirenak. Ondoren, lege berria indarrean sartu zenean, 2018ko ekitaldian bertan zein aurrekoan sortutako eragiketak likidatzeari ekin zitzaion.

Era berean, aipatu behar dugu auzitegiek ebazteko zain dagoela Udalak 2018ko ekitaldian 160.000 euroko gainbalioa igorri izana. Orain arte zergaduna zuzendu zaien instantzia judizialek -Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak- Udalaren aldeko epaiak eman dituzte. Txosten hau eman den egunean, Administrazioarekiko Auzien Salakirimo deklaratu du 2019ko irailaren 9ko epaia, eta zabalik geratu da sala horretan berraztertze errekurtsua jartzeko aukera.

- Bide exekutiboko prozedurari buruz egindako berrikuspenean, ikusi ahal izan dugu Udala ez dela ehuneko bosteko errenergua aplikatzen ari borondatezko aldiaren amaieraren eta premiamendu-probidentziaren jakinarazpenaren arteko aldi zorra ordaindu ez duten zergadunei.

- 2018ko ekitaldian, Udalak ez du zerga-kontrolerako planik izan. Hala ere, adierazten dugu 2019an Udaleko Osoko Bilkurak 2019-2020 aldirako plan bat onetsi duela eta NAO n argitaratu dela.

Borondatezko ordainketa-aldia amaitu eta bide exekutiboa igaro arte ehuneko bosteko errenergua aplikatzea gomendatzen dugu.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Honako hauek dira 2018an tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk direla-eta aitortutako diru-sarrerak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

Tasen, prezio publikoen eta bestelakoen diru-sarreraren bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2018/2017
	2017	2018	
Erabilera pribatiboarengatiko tasak	121.106	123.578	2
Musika eskola	47.047	49.151	4
Haur-eskola: eskolatzea	45.614	39.021	-14
Erromes-aterpetxea	39.992	38.000	-5
Bestelako kirol jarduerak	40.468	26.130	-35
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	23.911	23.416	-2
Premiamendu-errekargua	25.392	23.184	-9
Bestelako diru-sarrerak	203.615	252.739	24
Guztira	547.145	575.219	5

Diru-sarrerak ehuneko bost igo ziren 2017arekin alderatuta, batez ere eragiketa arrunten beste itzulketa batzuen eraginez, osasuna sustatzeko eta prebenitzeko jardueren eraginez eta kultura-jardueretarako sarreraren salmentarekin lotutako diru-sarreraren gehikuntzaren eraginez.

Hurrengo diru-sarreraren lagin bat berrikusi dugu:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Erabilera pribatiboarengatiko tasak	123.578
Musika eskola	49.151

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da haien likidazioa eta diru-bilketa onetsitako ordaintzen arabera egiten direla. Hala ere, esan behar dugu Kontu-hartzaitzak diru-sarreraren anomaliari buruzko gogoeta jakin batzuk egin dituela: gure txostenaren VI.5.2 atalean adierazi ditugu. Egiaztatu ahal izan dugunez, gazte-zentroarekin eta kiroldegiarekin zerikusia duten eta aurrekontuan tasa gisa kontabilizatuta dauden diru-sarrera jakin batzuek ez dute izan alde aurretik organo eskudunaren onespenean.

Era berean, egindako berrikuspenean egiaztatu da Udalak ez duela onetsitako tasa edo/eta prezio publikoak oinarritzeko kostuen azterlanik.

Gure gomendioak:

- *Tasa edo/eta prezio publikoak oinarritzen dituen kostuen azterlana egitea.*
- *Organo eskudunak, kasu guztietan, emandako zerbitzuei dagozkien tasa edo/eta prezio publikoak onestea.*

VI.5.8. Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 1,8 milioi eurokoak eta 0,43 milioi eurokoak izan dira hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 43 dira. Hona haien eta 2017ko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2018/2017
	2017	2018	
Toki ogasunen funtsa	1.185.160	1.245.517	5
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	174.085	191.760	10
0-3 urteko haur eskola	56.186	93.113	66
Enplegu sozial babestua	51.706	43.005	-17
Montepioaren finantzaketa	47.876	34.934	-27
DBHla, funtzionamendu-gastuak	34.819	33.254	-4
Hautetsien lansariak	17.712	31.106	76
Langile kontratatuak, Nafar Lansare: Obrak eta zerbitzuak	43.535	28.008	-36
Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren hobariak	95	27.201	28.533
Beste laguntza batzuk	60.276	67.735	12
Gutzikoa atal honetan (Nafarroako Gobernua)	1.671.450	1.795.633	7
Estatuarena	1.777	3.201	80
Toki entitateenak eta beste batzuenak	15.500	15.307	-1
Beste hainbat entitate, honaino, guztira	17.277	18.508	7
4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira	1.688.727	1.814.141	7
Nafarroako Gobernuarenak	36.701	426.005	1.061
Toki entitateenak eta beste batzuenak	13.949	7.538	-46
7. kapitulua, kapital-transferentziak, guztira	50.650	433.543	756

Transferentzia arruntek gora egin dute 2017koekin alderatuta, batez ere toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa handitu delako, 0-3 urteko haur-eskolarako dirulaguntzak gehiago izan direlako eta JEZaren hobariak handitu direlako.

Kapital-transferentzietan dagokienez, igoera hain handia izatearen arrazoia da Nafarroako Gobernuarengandik 2018ko ekitaldian zenbait obra finantzatzeko dirulaguntzak jaso dituela.

Transferentzien kapitulan, Udalaren aurrekontu-informazioaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren arteko koherentzia berrikustez gainera, diru-sarreraren honako partida hauen lagin bat berrikusi dugu:

Transferentzia arruntak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Oinarrizko gizarte zerbitzuarentzako dirulaguntza: hitzarmena	191.760
Haur hezkuntzarako transferentzia arruntak	93.113

Kapital-transferentziak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
2017-2019 toki azpiegituren plana: La Pila kalea	73.272
2017-2019 toki azpiegituren plana: Serapio Urra kalea	170.891
LGENFko 2014-2020 urteetako landa garapenerako programa, abeltzaintzako tokiko azpiegiturak	18.562

Egindako azterketan egiaztatu dugu ezen, oro har, jasotako transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera kudeatu direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Toki Inbertsioen Planaren barruan, Serapio Urria kaleko lanen finantzaketari dagokion 170.891 euroko eskubideen aitortpena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio-ko Departamentuaren laguntza emateko ebazpenarekin kontabilizatu da.

Aipatutako departamentutik laguntza likidatzeko bi ordainketa-ebazpenak 2019ko ekitaldian eman dira; hori dela eta, 2019ko ekitaldian kontabilizatu behar zen Udalaren eskubideen aitortpena.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzen eskubideen aitortpena kontabilizatzea kobratzeko unean, edo, hala badagokio, ente emaileak bere betebeharrak aitortzeko egintza eman duela egiazki jakiten den unean.*

VI.5.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

Honako hauek dira 2018ko ekitaldiko ondare bidezko diru-sarreraren osaketaren xehetasunak eta 2017ko ekitaldiarekin konparatuta izan den aldea:

Ondare bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2018/2017
	2017	2018	
Herrilurren aprobetxamendua	113.217	109.316	-3
Zentral hidroelektrikoko kanona	55.324	55.933	1
Basoetako herri-lurren aprobetxamenduak	-	30.168	100
Legar-harrobia	29.277	29.453	1
EHN, errotak	18.797	19.004	1
Herrilurretako larreen aprobetxamendua	16.630	16.779	1
Bestelako ondare diru-sarrerak	36.905	37.040	-
Guztira	270.150	297.693	10

Kapitulu honetako diru-sarreraren igoera, 2018ko ekitaldian, herri-ondasunen gaineko baso-aprovetxamenduengatik jasotako diru-sarrerei zor zaie ia. Espediente hau aztertuta, ondorioztatzen da likidazio-prozedura indarrean dagoen legeriaren arabera egin dela.

VI.5.10. Hirigintza

Udalak oraindik ere ez du lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eratu.

Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eratzea gomendatzen dugu, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren esparruan aurreikusitako helburuak betetzeko

VI.5.11. Ingurune teknologikoa.

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Vianako Udalaren Kontu Orokorrari buruzko txostenean, lehenengo aldiz, konklusio batzuk jaso ditugu "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta informazio-teknologiaren gaineko Udalaren kontrolei buruz.

Informazioaren teknologiaren kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Oro har, zibersegurtasunaren kudeaketa egokia egiten bada ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ez zaio heldu Segurtasun Eskema Nazionalaren araberrako ezarpenari.
- Ez dago jasota erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen dituen eta erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartzen duen idatzizko prozedurarik dagoenik.

- Pasahitzak autentifikatzeko politikak nolabaiteko ahultasun-maila du.
- Gailu mugikorren segurtasun politikak ez dira nahikoak.
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari dagokionez, datuak babesteko ordezkariaren izendapena eta tratamendu-jardueren erregistroa eskuratu dizkigute.
- Ez dago jasota faktura elektronikoa bultzatzeko eta fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak eskatutako sistemen urteko auditoretza-txostenari buruzko inongo informaziorik.

Gure gomendioak:

- *Segurtasun Eskema Nazionalaren arabeko ingurune teknologikoa ezartzea.*
- *Administrazio-pribilegioen kudeaketa hobetzea, erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen duen idatzizko prozedura bat sortuz, erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartuz, eta kontu generikoak erabiltzeko biderik eman gabe.*
- *Pasahitzen bidezko autentifikazio-politika indartzea, haren konfigurazioa behartuz ohiko jardunbide egokiei jarraitzea, hizki, zenbaki eta karaktere bereziak izan ditzaten.*
- *Gailu mugikorren segurtasun politikak indartzea.*

VII. “NUESTRA SEÑORA DE GRACIA” FUNDAZIOA

Nuestra Señora de Gracia Fundazioa Vianako zaharren egoitza kudeatzeaz arduratzen da. 2000ko martxoan sortu zen; data horretan hitzarmen bat sinatu zen Vianako Udalarekin, Fundazio hori egoitzaren gastu guztien arduraduna dela eta Udalaren jabetzako hartarako instalazioak erabil ditzakeela zehaztuz.

Patronatuko Batzordea Vianako Udaleko zinegotzi guztiek, alkateak, zeina batzarreko burua baita, eta Karitateko Alaben kongregazio erlijiosoko kide batek osatzen dute, eta batzarraren eskumenen artean dago bere aurrekontuak onestea, bai eta bere kontuak itxi eta likidatzea ere.

Era berean, erabaki horretan zehazten da fundazioaren Patronatuko Batzordeak ondokoak egin beharko dituela:

- Udalari diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua bidaltzea, justifikazio-oroitidazkiarekin batera.
- Kontuak ixtea, eta aurreko ekitaldiko sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa egitea. Likidazio hori Udalera bidali beharko da.

Hitzarmen hori betez, bada, Fundazioaren Patronatuko Batzordeak, 2019ko martxoaren 26ko bilkuran, 2018ko ekitaldiari zegozkion Emaizten Kontua, Egoeraren Balantzea eta Oroitidazki Ekonomikoa onetsi zituen, eta gero Udalari igorri zizkion. Aipatutako kontuak gure txosteneko eranskinean ageri dira.

Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrezz auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Vianako Udaleko alkate Yolanda González García andreak, udal horren izenean eta hura ordezkatzuz, Ganbera honen aurrean agertu eta, Zuzenbidearen arabera ondoen dagokion moduan, honako hau diot:

2019ko abenduaren 10ean, Vianako Udalaren 2018ko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio-txostena helarazi zitzaigun, aztertze eta, hala bazegokion, alegazioak egiteko.

Aukera horretaz baliatuz, eta Kontuen Ganberak egindako lanari dagokionez, honako alegazio hauek aurkezten ditut:

LEHENA.- Lehenbizi, eskerrak eman nahi dizkiegu langileei egindako lanarengatik, bai eta txostenean jasotako aholku eta gomendioengatik ere.

BIGARRENA.- Txostenak (eta araudiak), nolabait, Vianako Udalean esku hartzeko erantzukizuna zehazten duten arren, langileak eta politikariak —herria baikara eta lantaldea osatzen baitugu— Ganberak ematen dizkigun argibide eta gomendio guztien erantzule sentitzen gara.

HIRUGARRENA.- Txostenari erreparatuz gero, ikusten dugu ondasun eta eskubideen inbentarioa ez dela osoa; beraz, 2020ko aurrekontuen proiektuan aurrekontu-partida bat aurreikusi dugu inbentarioa osatzeko, herri-lurrak eta ondare historiko-artistikoa barne hartuta.

LAUGARRENA.- Kontratu-euskarririk gabeko zerbitzu jakin batzuk emateari dagokionez, honako hau baizik ez dugu jasota utzi nahi: Vianako Udala Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren Kontratazio Zentralari atxikita dago eta hemendik gutxira energia elektrikoaren eta gas naturalaren kontratuak adjudikatuko dira, bide exekutiboko kobrantza-zerbitzuarekin jada egin den bezala.

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialen Departamentuak finantzaketa berriari begira egindako proposamenaren ondorioz, Udalak birplanteatu egin behar du Gazte Zentroa kudeatzeko modua, eta, amaierako erabakia hartzeko, Ganberaren iritzia hartuko dugu kontuan.

Ilido beretik, abenduaren 19an, ostegunez, eginen den Ohiko Osoko Bilkuran, lorezaintza-zerbitzuaren kudeaketa aldatzeko prozedura hasteko proposamena eramanen dugu, zerbitzua udaletan nola banatu aztertze, behin-behineko txostenak adierazten duen bezala.

Ganberak aipatzen dituen kontratuen exekuzioaren jarraipenari dagokionez, esan behar dugu Udalaren kezka bat dela aspaldidanik, eta ikusi dela eskura dauden baliabideak baino gehiago bideratu behar direla kontrol horretara. Hala ere, neurri batean "hobetzeko" asmo horiek mugatzen dizkiguten araugintza-mekanismoekin egiten dugu topo, hala nola langile berriak sartzeko ezintasunarekin; izan ere lan hori behar bezala betetzeko ezinbestekotzat eta beharrezkotzat jotzen baitugu langile gehiago edukitzea.

BOSGARRENA. Dirulaguntzen Plan Estrategikoari dagokionez, oro har, Udalaren politika izan da, araudiaren barruan, dirulaguntza izendunak ezartzea, udalerriko elkarteekin lankidetzat es-tuan, udal intereseko jarduerak aurrera ateratzeko; horregatik, onetsi beharko dugun Plan Estrategikoaren jarraipena eta helburuak, Udalak izan duen argitasuna eta gardentasuna kontuan hartuta, ez dira guztiz berriak izanen.

Udalak salbuespenez ematen dituen dirulaguntza "ez-izendunetarako", prozedura arautzen duten oinarri arautzaileak onetsi ondoren, dirulaguntzen ordenantza orokorrean sartu beharko ditugu.

SEIGARRENA.- Behin-behineko txostenak adierazten duen bezala, nahiz eta gure ustez idazketa ez dagoen guztiz argi, Udalaren kudeaketa ekonomikoari dagokionez, barne-kontrolleko funtzioak honako hiru adiera hauetan gauzatu behar dira:

- 1.- Kontu-hartzaitzaren eginkizuna.
- 2.- Kontrol finantzarioaren eginkizuna.
- 3.- Eraginkortasunaren gaineko kontrolaren eginkizuna.

Toki entitate horretan, Nafarroako beste entitate askotan bezala, premisa horiek behar bezala betetzeko behar diren bitartekoak izatea gustatuko litzaiguke. Hala ere, gaur egun, kontu-hartzaile bat badugu, diruzainaren eginkizunak betetzen dituen, eta laguntzaile bakarra dauka: Udaleko gainerako ofizial administratiboekin batera lan komunak egiten dituen ofizial administratibo bat.

Gure irizpideari jarraituz, eta Administrazio honen aldetik, Kontu-hartzailetzako zerbitzuari funtzio horiek egin ahal izateko behar diren bitartekoak eskuratu beharko genizkioke.

Ikusi dugun eta zorrotz samarra iruditzen zaigun xehetasun bat aipatu nahi dugu: txostenaren testuak adierazten duenez, "Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzailetzaren eginkizunaren bitartez egiten da...".

Nafarroako Toki Administrazioen sektorean errepikatzen den eta orokortuta dagoen zerbait denez, eta hala jasota dago Ganberak beste entitate batzuei zuzendutako txostenetan, uste dugu komenigarria litzatekeela gai hori ikuspegi orokor batetik bideratzea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Toki Administrazioa bezalako entitateak kontuan hartuta, lortu nahi diren emaitzak lortze aldera behar diren bitartekoak alde aurretik adosteko.

ZAZPIGARRENA.- Udalak ematen dituen zerbitzu publikoen kostuak kalkulatzeko eta aztertzeko tresna informatiko bat izatea gustatuko litzaiguke, duela zenbait urte Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioak eskuratu zigunaren antzekoa.

Izan ere, ANIMSaren bidez programa berri bat lantzen ari gara, eta oraintxe bertan "proba" lanak egiteko eskaini diren udal gutxi batzuetan (hau da, bitan) ezarri da programa hori. Gainerako udaletan lan horren jarraipena egiten dugu, eta aplikatu beharreko azken irizpide guztiak adostu ondoren, programa ezarriko dugu, bera aplikatu ahal izateko.

Gure ustez, funtsezko eta beharrezko tresna da, laguntza handikoa, eta faltan botatzen dugu.

ZORTZIGARRENA.- Hurrengo Ohiko Osoko Bilkurara, 2020rako tipoak, tasa eta prezio publikoak onesteko proposamena eramanen dugu, emandako zerbitzu publikoen diru-sarrera guzti-guztiak ezartze aldera.

Horregatik guztiagatik, Kontuen Ganberari eskatzen diot, idazki hau aurkeztutzat hartuta, onar dezala eta alegazio hauek aurkeztutzat jo ditzala.

Vianan, 2019ko abenduaren 16an

Vianako Udaleko alkate, Yolanda González García andrea

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Vianako Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga